



10/2025. AKTA OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2025eko urriaren 30ean, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutakoak: Argi Yeregui Egaña
Aitor Manterola Garate
Marina Bidasoro Arozena
Asier Arakistain Alberdi
Maite Egaña Larrañaga
Unai Larrañaga Uranga
Nerea Goiria Mendiola
Jose Miguel Antia Albizu
Joxe Mari Azkue Castillo
Ainhoa Illarramendi Azkue
Iker Mardaras Arrieta
Xabier Odriozola Etxaniz
Ander Olaizola Esnal
Mireia Aranbarri Ieregi
Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Ez bertaratutakoak: Itziar Etxabe Etxabe

Idazkaria: Alexander Marañon Muñoz

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:
Arratsalde on denoi. Urriko ohiko osoko bilkurari hasiera emangoiou.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.-AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

(8/2025 zenbakia. 2025.09.25)

(9/2025 zenbakia. 2025.10.02)

Iraileko Ohiko Osoko Bilkurako eta urriko Ezohiko Osoko Bilkurako aktak aho batez onartu dituzte.



2.- IRIZPENAK

2.1.- GIZA BALIABIDEAK KUDEATZEKO ETA BELAUNALDI ALDAKETA PLANIFIKATUAN EZAGUTZA TRANSFERITZEKO PLANA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA

AURREKARIAK

I

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak 69. artikuluan ezartzen duenez, administrazio publikoek beren giza baliabideak planifikatzeko aukera duten. Plan horietan, besteak beste, langileria aroko baliabideak eta beharrak aztertuko dira eta neurriak hartu zerbitzuak modu eraginkorrean emateko eta eskura dauden baliabide ekonomikoak era, ekonomikoak kudeatzerakoan eragimenez jarduteko. Horretarako, langile kopurua azertu, langileak hobeto banatu, ondo prestatu eta lanbide-sustapena eta mugigarritasuna eskaini behar dira. Artikulu horren arabera, administrazio publiko bakoitzak bere giza baliabideak planifikatuko ditu, kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauetan ezarritako sistemen arabera.

Era berean, Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzko 1984ko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, autonomia-erkidegoek eta toki-korporazioek, beren auto- antolaketarako ahalmenaren arabera, enplegu planez gain, giza baliabideak arrazionalizatzeko beste sistema edo neurri batzuk hartzeko aukera izango dutela beren ezaugarri bereziei egokituriko programen bitartez. Neurri horien artean, borondatezko eszedentzia eta aurretiazko erretiroa hartzeko pizgarriak jaso daitezke.

Bestalde, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeko 48. artikulua enplegu publikoa planifikatzeko tresnak prestatu edo erabiltzeak lortu behar harko dituzten helburuak zehazten ditu: eraginkortasuna lortzea zerbitzu-prestazioan, bai eta efizientzia ere eskueran dauden baliabide humano, ekonomiko, material eta teknologikoen erabileran.

Horrekin batera, Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 49.1 artikulua, ezartzen du euskal administrazio publikoek, langileen ordezkartzarekin negoziatu ondoren, aukera izango dutela enplegu publikoa antolatzeko planak onartzeko.

Artikulu bereko 3. atalaren arabera, enplegu publikoa antolatzeko planek, beste neurri batzuen artean, jaso ditzakete borondatezko eszedentzia eta erretiro aurreratu sustatzeko pizgarriak, baita zerbitzu aktiboari uko egin edo zerbitzu aktiboan behin betiko baja hartzekoak ere, bai eta 48. artikuluan zehaztutako helburuak dituen beste edozein neurri ere.

Zumaiako udalak giza baliabideen eraginkortasuna lortu nahian, plan estrategiko berri hau planteatzen du. Plan horrek, ordainsariko izaera ez duten beste laguntza batzuk jasotzen ditu, plantilla berri, belaunaldi-erreleboa eta ezagutzaren transferentzia bultzatu eta lortu nahi dituen.



Zumaiako udal langileen plantilla nabarmen zahartzen ari da. Hori dela eta, beharrezkoa da belaunaldien arteko erreleboa planifikatzea eta behar diren neurriak ezartzea, egungo plantillak metatutako esperientzia eta ezagutzak behar bezala transmititu ahal izateko horiek ordezkatu behar dituzten pertsoneri, eta, aldi berean, Udaleko sailek eta zerbitzuek herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzeko helburuak zehaztu ahal izateko.

Zumaiako udalak giza baliabideen eraginkortasuna lortu nahian, plan estrategiko berri hau planteatzen du. Plan horrek, ordainsariko izaera ez duten beste laguntza batzuk jasotzen ditu, plantilla berri, belaunaldi-erreleboa eta ezagutzaren transferentzia bultzatu eta lortu nahi dituena.

II

Zumaiako Udalak gai honetan duen eskumenari dagokionez, honako hauek gaitzen dute: abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen hogeita batgarren xedapena, Enplegatu Publikoaren Estatutuaren 69. Artikulua, eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 48. eta 49. artikulua.

Horregatik guztiagatik, Zumaiako Udalak erabaki hau onartzeko eskumena du.

III

Erabaki honek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako erregulazio onaren printzipioei erantzuten die. Ildo horretan, honako txosten hauek egin dira:

1. Giza Baliabideen Sailaren txostena.
2. Ogasun Sailaren txostena.
3. Idazkaritza Sailaren txostena.

Gainera, plana langileen batzordean eztabaidatu eta onartu da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2025ko urriaren 22ko Antolakuntza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Aldeko botoak: 3 bozka (3 EH-BILDU)

Aurkako botoak:

Abstentzioa: 2 bozka (2 EAJ)



Aldeko irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

Lehenena.- Giza Baliabideak Kudeatzeko eta Belaunaldi Aldaketa Planifikatua Ezagutza Transferitzeko plana onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Hirugarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetan sartuko da indarrean.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo aukeran, berraztertze errekurtsua, erabakia hartu duen organo berari zuzendua.

Antolakuntza Batzordeburua

INAKI OSTOLAZA ESNAI:

Asier, pixkat azalduko diguk?

ASIER ARAKISTAIN ALBERDI:

Bai, arratsalde on.

Bai bueno hona ekartzen deuna da, izenburuak berak esaten dun bezala, giza baliabideak kudeatzeko eta belaunaldi aldaketa planifikatua ezagutza transferitzeko plana.

Beraz, azterketa baten ondoren, udaleko langileen plantilla nabarmen zahartuta daola konturau gara. % 35ak 50 urtetik gora daka eta % 65ak 45 urtetik gora. Hori hala izanik, ba bueno, beharrezkoa ikusten da belaunaldien arteko errelebo hori planifikatua eta era berian, egungo plantillak metatuta dituen esperientzia zein ezagutzak behar bezala transmititu ahal izafia.

Behar hori hala ikusita, eta bueno, enplegu publikoan estatutuak, zein euskal enplegu publikoaren legeak ahalbideratzen dun bezala, administrazio publiko bakoitzak bere giza baliabideak arrazionalizatzeko planak egiteko eskumena izanik eta plan horien barruan, ba bueno besteak beste, bai borondatezko eszedentziak, zein aurretiazko erretiroak hartzeko aukerak ematen dian, inoiz ez pizgarri ekonomikoak. Hori horrela izanik, ba bueno, Zumaiako udalak



eraginkortasuna lortu nahian plan estrategiko hau aurrera eramatea planteatu izan du.

Euskal enplegu publikoko legeak zehazten duen bezela, horrelako plan estrategiko bat edo horrelako arrazionalizazio plan bat aurrera eramateko derrigorrezkoa da langile ordezkariekin negoziazio prozesu bat aurrera eramatea.

Eta kasu hontan iaztikan mahai gainean jarri ginun udal honek, edo guk behintzat hala ikusten ginun, udal honek zituen beharrak langile ordezkarietara eta urte hontan zihar alkarrekin eraman deuen negoziaketara prozesu bat eta hartara iritsi gara mahai gainean dakaun honetara.

Plan honen oinarriak seigarren artikuluan zehazten dira. Alde batetik, aurre-jubilatu edo neurriekin bat eitea nahi duten langileak jakintza transferitzeko programan bat egin beharko luke. Eta ondoren aukeratuko luke ze aukerak izan.

Plan hau behin onartuta langile ordezkariekin ezinbestekoa da administrazio publikoen prozeduraren erregularizazio honen printzipioak erantzutia. Plan honek erantzuten die printzipio hoiei. Eta ildo horretan, bai giza baliabideak, bai ogasun sailak zein idazkaritzak txostenak egin zituzten. Txosten guztiak aldekoak izan dira.

Eta beraz, ba bueno, langileekin hala adostuta eta txosten guztiak aldekoak izanik, ba bueno, hona ekartzen dogu giza baliabideak kudeatzeko eta ezagutza transferitzeko plan hau onartzeko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko Asier. Iker, zurea da hitza.

IKER MARDARAS ARRIETA:

Kaixo, arratsalde on guztioi.

Bueno, plan honi abstentzioa bozkatuko diogu.

Ados gaude planaren xehiak eta fundamentuak eta arrazoiekin. Baina bueno gure abstentzioaren zergatia ez jakitia da.

Azken finean gurekin plan hau ezta ez informatu, ez partekatu, ez aurrerapenarekin eman behintzat batzordean diktaminatu zenean, nolabait diktamen horri zentzuzko edo arrazoizko edo irakurritako bozka bat emateko.

Hau ez da aldi bakarra horrelako prozedura daramala udal gobernua. Eta bueno espero degu azkena izatia.

Milesker.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Zuri, Iker. Duñike? Bueno ba besterik gabe bozkatu eingo dugu.

Aldeko botoak: 10 boto (9 EH BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 6 EAJ-PNV



ERABAKIA:

GIZA BALIABIDEAK KUDEATZEKO ETA BELAUNALDI ALDAKETA PLANIFIKATUAN EZAGUTZA TRANSFERITZEKO PLANA ONARTZEA

2.2.- UDALAREN 20. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

“Konpromiso kreditu bidezko kreditu aldaketaren 2025-KALD-000022 zenbakidun espedienteak onartzeko irizpena”.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, 2025eko urriaren 22ko Ogasun Batzordean kreditu konpromiso modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak 22. artikuluan.

Gaia aztertu ondoren,

IRIZPENA

Lehenengoa.- 2025eko urriaren 22an ospatzen den Ogasun Batzorde honek onartzen du Osoko Bilkurara eramatea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu konpromiso modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin:

-2026. urterako konpromiso kredituak sortzea:

5 0100.622.334.02.01 2026 Konbentuko kapera (ULO) 400.000,00€.

5 0100.622.153.30.03 2026 Marianton parkea 1.060.000,00€

Finantzaketa, aurrezki garbia.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak: 3 (3 EH-BILDU)

Aurkako botoak: 2 (EAJ)

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen da.

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bale. Bigarren puntua, 20. kreditu aldaketa. Hemen ekartzen duguna da kreditu aldaketa bat, non alde batetik, kreditu aldaketa bat baino gehio konpromisozko kreditu bat ekartzen dugu gaur honea. Azken finean, honek adierazten duna da 26an txertatzeko konpromisoa 26ko aurrekontuan eta



helburua da aurten lizitatu ahal izatea bi obra hauek, baino gauzatzea 2026an. Ta hortarako, lizitatu ahal izateko, aurrekontuetan islatuta egon bihar du diru kopuru hori. Azken finian dia 400.000 euro komentuko kaperako eta 1.060.000 euro Marianton parkerako.

Zerbait komentatzeko? Bai. Zure hitza Xabier.

XABIER ODRIUZOLA ETXANIZ:

Kaixo, arratsalde on. Bueno, 20. kreditu aldaketan EAJ-PNV taldeak abstentzioa bozkatuko du ondoren aipatuko ditudan arrazoiengatik:

Marianton parke berria egitearen alde gaude, zeren eta guztiz hondatuta dago. Adibidez: 2023an "kolunpiuak" puskatu ziren eta ez dira berriak jarri.

Proiektu hau 2019an EAJ alkatetzan zegoenean jarri zen martxan eta denboran zehar aurrekontuak eboluzio hau izan dute:

2023ko aurrekontuan 240.000 euro.

2024ko aurrekontuan 680.000 euro.

2026ko aurrekontuan 1.060.000 euro.

Marianton parkea berria bai ala bai egitearen alde gaude; baina 1.060.000 euroak era orekatu batean banatu behar dira Zumaiako jolas parke guztien artean.

Parke bakar batean 1.060.000 euroa gastatzea astakeria bat iruditzen zaigu ze desoreka handia dago beste parke guztietara 50.000 euro bakarrik jarriko direlako 2026ko aurrekontuetan.

Adibidez: Patxita Etxezarretan egin zen azken jolas parke berriak 36.000 euro balio izan zitun 2023an; Eta, 1.060.000 euroatik beste parke batzuetan inbertitzeko dirua atera beharko litzatekela iruditzen zaigu.

Badakigu haurren kontseiluko kideen laguntzaz diseinatutako parkea dela eta horregatik haurren kontseiluko ideiak beste parkeetara bideratzea ere egokia iruditzen zaigu.

Bukatzeke, emandako arrazoiengatik EAJ-PNV taldeak abstentzioa bozkatuko du.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko Xabier. Duñike, zerbait komentatzeko?

Bueno ba besterik gabe bozkatu egingo degu.

Aldeko botoak: 10 boto (9 EH BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 6 EAJ-PNV

ERABAKIA:

UDALAREN 20. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA

2.3.- UDALAREN 21. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

**“Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2025-KALD-000021-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaien legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- 2025eko urriaren 22an ospatzen den Ogasun Batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	617.825,70	18.107,65	599.718,05
GUZTIRA		617.825,70	18.107,65	599.718,05

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	15.000,00	15.004,00	30.004,00
6	INBERTSIO ERREALAK	0,00	3.103,65	3.103,65
GUZTIRA		15.000,00	18.107,65	33.107,65

Bigarrena.- Kreditu transferentzien espedientea onartzeko, ez dago jarraitu beharrik aurrekontua onartzeko aurreikusitako informazio, erreklamazio, errekurtso eta publizitate araurik. Behin, Osoko Bilkurak onartzen duenean behin betiko bihurtuko da.

Aldeko botoak: 5 (3 EH-BILDU, 2 EAJ)

Aurkako botoak:

Abstentzia:

Proposamen hau onartzen da.



Zumaia Udala

2025IAKU0010

Batzordeburua
hartzailea

Kontu-

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Kasu hontan egiten dena da kreditu aldaketa, bai. Eta bi partidetatik 18.100 kentzen dira eta gutxitzen dira eta handitzen dira beste bi partidetan. Gehienbat kopuru handiena baserriko bideen mantenua. Aipatu gendun bezela batzordian, Oikitan Ibañarrietako bidia konpontzeko erabiliko dian diruak dira hauek.

Zerbait komentatzeko? Bale, ba bozkatu eingo dugu.

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

3.- PROPOSAMENAK

3.1.- TORREAGA 12 HIRIGINTZA EREMUKO 1.1/12.2 GAUZATZE UNITATEKO 1.3 LURSAILA ETA 1.8.3 AZPI LURSAILA PARTZELETAN ERAIKIKO DIREN BABES OFIZIALEKO 46 ETXEBIZITZA ETA GARAJE ETA 17 TRASTELEKUEN ZOZKETA ETA ESLEIPENERAKO OINARRIEN ALDAKETA ONARTZEA. EZTABAIDATU ALA EZ.

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

TORREAGA 12 HIRIGINTZA EREMUKO 1.1/12.2 GAUZATZE UNITATEKO 1.3 LURSAILA ETA 1.8.3 AZPI LURSAILA PARTZELETAN ERAIKIKO DIREN BABES OFIZIALEKO 46 ETXEBIZITZA ETA GARAJE ETA 17 TRASTELEKUEN ZOZKETA ETA ESLEIPENERAKO OINARRIEN ALDAKETARAKO AKORDIO PROPOSAMENA.

Construcciones Sukia Eraikuntzak S.L, Babes Ofizialeko 52 etxebizitza eraiki daitezkeen Torreaga 12 hirigintza eremuko 1.1./ 12.2 gauzatze unitateko 1.3 lursaila eta 1.8.3 azpi lursailen jabea da. Sukia Eraikuntzak S.Lk interesa agertu zuen etxebizitza horiek esleitzeko zozketa berariaz sortutako etxebizitza eskatzaileen udal-erregistro baten bidez egiteko; kontutan izanda, Babes Ofizialeko etxebizitzen eraikuntzak helburu sozialari erantzuten diola eta onuragarria dela herritarrentzat Udala izatea zozketa tutelatuko duena, hori ahalbidetuko zuen hitzarmena adostea erabaki zen.

2025eko urriaren 2ko Ezohiko Osoko Bilkurak, Torreaga 12 hirigintza eremuko 1.1/12.2 gauzatze unitateko 1.3 lursaila eta 1.8.3 azpi lursaila partzeletan eraikiko diren Babes Ofizialeko 46 etxebizitza eta garaje eta 17 trastelekuen zozketa eta esleipenerako oinarriak jasotzen dituen Zumaia Udala eta Construcciones Sukia Eraikuntzak S.L-ren arteko Hitzarmenari behin betiko onarpenera eman zion (GAO 198 znb, 2025eko urriaren



16). Baloratu da oinarrien "9. Artikulua. Zozketa eta etxebizitzak esleitzea" artikuluan komenigarria dela aldaketak txertatzea.

Espedientean jaso diren txostenak oinarri hartuta, eta, zehazki, ebazpena arrazoitzeko balio duen arlo proposatzailearen txostena eta udal-araudia onesteko eta aldatzeko prozeduraren txosten orokorra.

Legez ezarritako izapideak egin ondoren, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 82.3 eta 91.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera

Udal Osoko Bilkurak, ordenamendu juridikoak eta, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen Legearen 22.2 d) artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz, ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Hasiera batean onestea TORREAGA 12 HIRIGINTZA EREMUKO 1.1/12.2 GAUZATZE UNITATEKO 1.3 LURSAILA ETA 1.8.3 AZPI LURSAILA PARTZELETAN ERAIKIKO DIREN BABES OFIZIALEKO 46 ETXEBITZA ETA GARAJE ETA 17 TRASTELEKUEN ZOZKETA ETA ESLEIPENERAKO OINARRIEN ALDAKETA , espedientean jasotzen den testuarekin.

BIGARRENA.- Oinarrien aldaketa jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-taulan argitaratuta, hogeita hamar eguneko epean espedientea aztertu eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Horiek, Udalbatzak ebatziko ditu.

Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da, osoko bilkuraren berariazko erabakirik behar izan gabe, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49.c artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aldi berean, oinarrien aldaketaren testua Udalaren webgunean (www.zumaia.eus) argitaratzea, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarri guztiak biltzeko.

HIRUGARRENA.- Behin betiko egin ondoren, oinarrien testu osoa argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

LAUGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten era guztietako agiriak izenpetu eta sinatzeko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Torreagako akats edo zuzenketa hau azaltzeko, Alex azalduko diguzu?

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

(Eten bat egon da eta hasiera ez da entzuten)

Bai. Esaten nuen Torreagako etxebizitza eta garajeak eta trastelekuen zozketa eta esleipeneko oinarrien onarpenerako prozeduran ikusi dogu behin betiko onartu denean, ba hasiera batean adostutako testua, zozketaren inguruan, ez zegoela egokia. Eta orduan, bueno, joan izan da prozedura guzian zehar akats hori. Gogoratzen duzue hasiera batean bola ezberdinak ateratzea eta abar... eta azkenean hobetsi zan proposamena izan zela bola bakar bat



ateratzearena gardentasunaren ikuspegitik. Orduan ba bueno, hori dela eta ba proposatzen zaizuen da aldaketa hori bideratzea eta aldaketa bideratuko dugunez oinarri batzuen baitan pues berriz ere agerraldi publikoan jarri behar dira. Eta e bederatzigarren artikulua da aldatzen dena hasiera batean proposatutako zozketa bidearekin.

Eta hortaz, pues gaur hona ekartzen duguna da, alde batetik hasiera batean onestea oinarrien aldaketa hori, espedienteaan jasotzen den testuarekin. Hau da, bederatzigarren artikulua, pasatu zaizuen hori ya testu egokia izango litzatekeena.

Bigarrenik, oinarriaren aldaketa jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarkitaulan argitaratuta, hogeita hamar eguneko epean espedientea aztertu eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Eta baleude Udalbatzak ebatziko lituzkete eta ez baleude zuzenean onartuta egongo litzateke. Bai? Testua web orrian egongo da ikusgai alegazioak egin ahal izateko.

Eta bueno behin-betikoa onartu ondoren, ba ya testu definitiboa, osatua, osoa, oinarrietan, barkatu boletinean publikatu eta udaleko web orrian ere publikatuko genuke. Hori da.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko, Alex. Zerbait komentatzeko? Bozkatu eingo dugu orduan.

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

TORREAGA 12 HIRIGINTZA EREMUKO 1.1/12.2 GAUZATZE UNITATEKO 1.3 LURSAILA ETA 1.8.3 AZPI LURSAILA PARTZELETAN ERAIKIKO DIREN BABES OFIZIALEKO 46 ETXEBIZITZA ETA GARAJE ETA 17 TRASTELEKUEN ZOZKETA ETA ESLEIPENERAKO OINARRIEN ALDAKETA ONARTZEA

3.1.- A-155 PANTEOIAREN TITULARTASUNA ALDATZEKO ERABAKIA OFIZIOZ BERRIKUSTEKO PROZEDURA BOZKATU ALA EZ

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Udala izapidetzen ari den hurrengo espedienteari dagokionez, NEREA EGAÑA EGAÑAk eskatuta, Maria Belen Manterola Egañari, titular gisa, eta Juan Ignacio



Manterola Chaparteguiri eta Maite Egaña Elorriagari, titularkide gisa, 2005eko azaroaren 24ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez Egaña Manterola A-155 panteoiaren titulartasuna ematearen ondoriozko administrazio-egintza berrikusteko eskaera dela eta, eta Udalbatzak 2024ko uztailaren 24an hartutako erabakiaren arabera, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio egintza hori ofizioz berrikusteko prozedurari.

Aurrekari hauek ikusita

- Interesdunaren eskaria: 2024ko uztailaren 10an
- Alkate probidentzia: 2024ko uztailaren 11an
- Idazkaritzako txosten juridikoa-ebazpen proposamena: 2024ko uztailaren 11an
- Lurralde batzorde informatiboaren irizpena: 2024ko uztailaren 17an
- Osoko bilkuraren akordioa: 2024ko uztailaren 24an
- Interesdunei jakinarazpena alegazioak egiteko 2024ko abuztuaren 8an
- Idazkariaren ziurtagiria alegazioen inguruan 2024ko urriaren 18an
- Idazkariaren txosten-erabaki proposamena 2024ko urriaren 18an
- Lurralde batzorde informatiboaren irizpena: 2024ko urriaren 23an
- Osoko bilkuraren akordioa: 2024ko urriaren 31an
- EABJren irizpena: 2024ko abenduaren 20an
- Idazkaritzako txosten juridikoa-ebazpen proposamena: 2025ko urtarrilaren 15an
- Lurralde batzorde informatiboaren irizpena: 2025ko urtarrilaren 22an
- Osoko bilkuraren akordioa: 2025ko urtarrilaren 30an
- Interesdunei jakinarazpena alegazioak egiteko
- Idazkariaren ziurtagiria alegazioen inguruan 2025ko ekainaren 5an
- Idazkariaren txosten-erabaki proposamena 2025ko uztailaren 10an
- Lurralde batzorde informatiboaren irizpena: 2025ko uztailaren 16an
- Osoko bilkuraren akordioa: 2025ko uztailaren 23an
- EABJren irizpena: 2025ko urriaren 10an

Ikusi da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak emandako irizpena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Bertan xedatzen da BADAGOELA deuseztasun-akatsa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluan arautzen dena.

Berrikuspen-prozedura hori aipatutako deuseztasun-kausan oinarrituta dago, eta administrazio-prozedura erkidearen arauen arabera izapidetu da.

Legez ezarritako izapidetak egin ondoren, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 82.3 eta 91.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera



Udal Osoko Bilkurak, ordenamendu juridikoak eta, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen Legearen 22.2 j) artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz, ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren aldeko nahitaezko irizpena jaso ondoren, erabat deusez deklaratzeko A-155 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia, 2005eko azaroaren 24an ebatzi zena, osoko bilkuraren erabaki bidez, Zumaia Udaleko panteoien titulartasuna eguneratzeko prozeduraren barruan. Izan ere, uste da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluko deuseztasun-kausa honetan sartuta dagoela: " Legez ezarritako prozedura edo kide anitzeko organoen borondatea eratzeko funtsezko arauak erabat baztertzuz emandako egintzak."; Zehazki, eguneratu nahi zen A-155 panteoiaren titulartasuna emateko 2005eko azaroaren 24ko Erabakia oinordetza-eskubidearen titular zen María del Sagrario Egaña Elorriaga pertsonari entzun gabe hartu zen, Zumaia Udal Hilerriaren Erregimen eta Funtzionamenduaren Araudiaren 16. artikuluan ezarritakoa urratuz.

BIGARRENA.- A-155 panteoiaren titulartasuna eguneratzeko prozedura hasia Zumaia Udal Hilerriaren Araubide eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera,

HIRUGARRENA.- Interesdunei erabaki hau jakinaraztea, eta adieraztea honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bakarrik jar daitekeela, jurisdikzio hori arautzen duen legean aurreikusitako moduan eta epeetan.

ALKATEA IÑAKI OSTOLAZA ESNAL

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Alexek esplikatu dizkigu nondik norakoak.

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Bueno, espediente hau behin eta berriro joan izan gara aztertzen, bideratzen berriz ere. Bueno luzetxo izan da eta bueno ba ya behin betiko ya, zera, COJUAREN, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren nahitaezko irizpena jaso dugu eta aldekoa da.

Hortaz, tokatzen dena ya espedientea ixteko da ya osoko bilkura honek berrestearena deuseztasun hori.

Hor ikusten duzuen aurrekari guztiak 2024ko uztailaren 10etik espediente honekin eta bueno, pues garaia da behar den moduan ixteko eta horregatik ekarri da apur bat presaka, ba bueno, ba dena ya bideratuta dago. Eta hortik aurrera, noski, ba ya panteoi horren titulartasun berria bideratuko litzateke.

Interesdun guztiei helaraziko zaie honen berri.

Eta besterik gabe, planteatzen dena da Euskadiko aholku batzorde juridikoaren aldeko nahitaezko irizpena jaso ondoren, irizpena jaso duzue: txosten mardul



eta luzea ta bueno, juridikoki ere landua, erabat deusez deklaratzearena A-155 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia.

Eta horrekin batera, panteoiaren titulartasuna eguneratzeko prozedura hastea, Zumaiako udal hilerriaren araudi eta funtzionamenduaren erregelamenduaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eta hirugarrenik, interesdunei erabaki hau jakinaraztea.

Eta adieraztea honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bakarrik jar daitekeela

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bale. Eskerrik asko. Alex. Bozkatuko degu, ez?

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

A-155 PANTEOIAREN TITULARTASUNA ALDATZEKO ERABAKIA OFIZIOZ
BERRIKUSTEKO PROZEDURA ONARTZEA

4.- MOZIOA

4.1.- EDUKI TRANSFOBOA DUEN GERTAERA BATEN AURREAN ESKU HARTZEKO ETA ERAKUNDEEN LEGITIMAZIOA SAIHESTEKO MOZIOA

MAITE EGAÑA LARRAÑAGA:

Eduki transfoboa duen gertaera baten aurrean esku hartzeko eta erakundeen legitimazioa saihesteko mozioa

Beren burua feministatzat duten talde batzuk "Mitoa hautsi, Birkonkistatu Errealitatea: Haur eta Nerabe Transen Negozioa" izenburupean antolatutako jardunaldiek kezka sakona sortu dute Haur eta Nerabe Transen ongizatea eta eskubideak defendatzen dituzten kolektiboen artean. Jardunaldi hauen helburua NAIZEN elkarteak maiatzean Bilbon antolatutako Hautzaro eta Nerabezaro Transari buruzko Nazioarteko I. Kongresuari erantzuna emateko saiakera bat besterik ez da izan.

Nahiz eta topaketa hauen izaera trans adingabeen osasun-arretari buruzko hausnarketa kritikoa dela adierazi, bai izenburuak bai egitarauak (eta parte hartzen duten erakundeen historial publikoak) argi eta garbi erakusten dute bidezko kritika bat baino askoz harago doan ikuspegi bat dutela.

Berez, ideia transfoboak zabalitzeko plataforma bat da, trans pertsonen existentzia bera ukatzeko, bereziki haur eta nerabeena, eta bai medikuntzan



eta bai gizartean gaitzetsiak izan diren hitzaldiak sustatzea besterik ez dute helburu.

Elkarte hauetatik publikoki behin eta berriz zabaldu dituzten baieztapenen artean aurkitzen dira:

- Haur trans-en existentzia ukatzea, nahaste edo doktrinamendu batera murriztuz.
- Transexualitatearekin lotutako edozein tratamendu mediko mutilazioarekin parekatzea, testuinguruak, protokolo medikoak eta ondo lagundutako erabaki pertsonal edo familiarak bereizi gabe.
- Konbertsio-terapiak ezkutuan edo esplizituki sustatzea, nazioarteko estandarren arabera indarkeria-moduztat jotzen direnak.
- Trans identitatea interes ekonomikoen emaitza gisa irudikatzea, horrela identifikatzen direnen errealitateak deshumanizatuz.

Narratiba hau sakonki iraingarria eta informatu gabea izateaz gain, ondorio zehatzak ditu trans pertsonen estigmatizazio sozialean, bazterketan eta sufrimendu psikologikoan, bereziki adingabeen kasuan, eguneroko bizitzan jada duintasunez bizitzeko oztopo izugarriei aurre egin behar baitiote.

Agertoki kezagarri honen aurrean, Zumaiako Udalari erantzukizunez eta konpromiso demokratikoz jokatzuz, honako neurri hauek burutzeko konpromezua hartzea eskatzen diogu:

1. Erakundeak ez diezaiela babesik eman, ez zuzenean ez zeharka, ekitaldi horiei, ez eta antolatzen dituzten erakundeei ere, espazioak lagaz, ekitaldiak hedatuz, haietan parte hartuz edo finantziazio publikoaren bidez.
2. Sustatutako edukiek gorroto diskurtsoari, haurren babesari edo berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioei buruzko araudiak urratzen ote dituzten ebaluatzea.
3. Sexu eta genero-aniztasunari dagokionez, errespetuan, ebidentzia zientifikoa eta giza eskubideetan oinarritutako politikekiko konpromiso publikoa indartzea, Udaletxeko langileentzako prestakuntza-programak sustatuz gainera.
4. Eztabaida, hezkuntza eta akonpainamendu espazio seguru, informatu eta eskuragarri gehiago sortzea, trans adingabe eta haien familientzat, diskurtso polarizatzaile eta estigmatizatzaileei kontrajarrit.

Ezin da haurtzaroa babestu beldurra, ezjakintasuna eta bazterketa sustatuz. Trans adingabeentzako prozesu seguru, informatu eta lagunduak bermatzeko modurik onena ez da haien existentzia ukatzea edo haien ahotsak isilaraztea, kalitatezko baliabide publikoetarako sarbidea zabaltzea baizik, beraien eskubide guztiak bermatuz.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko, Maite. Bozkatu egingo deua.

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0



4.- UDALBATZAKO ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA.

4.1.- 2025EKO 18. ETA 19. ERREPARO ORRIAK ETA HAIEN EBAZPENAK JAKINARAZTEA

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (18/2025):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaiako Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
Kalexka elkarte	Kale heziketa/esku hartze programa	01/07/2017	2+2	01/07/2021
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.
- 5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.
- 6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018,



por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udaltzatzen erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako mankomunitatei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebatzen den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtszko beharkizun** edo izapidetak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.



27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

